

Armanak Uskara

edo

Ziberouko Egunaria

1896 betharras ourtheke

Jinkoa eta Herria !
Zuhurtarizona eta lana !
Eta bizi belhi Uskalduna !
Iao ! Iao !

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maolen
DETCHERRY enian

Atharratzen
CAUTURE enian.
MENDIONDO-SANTZENIAN

Prezioa : BI SOS



BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
⊕ " Argizagi azken laordena.
⊙ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
⊕ " Argizagi lehen laordena.
-

OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthailako* 2^{an}; — HAOSTE, *baranthailako* 19^{an}; — BAZKO, *aphirilako* 5^{an}; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 11^{an}, 12^{an} eta 13^{an}; — SALBATORE, *maiatzeko* 14^{an}; — PHENTEKOSTE, *maiatzeko* 24^{an}; — BESTABERRI, *arramaiatzeko*, 4^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azaroko* 29^{an}.

LAOR THENPORAK :

Baranthailako 26ⁿ, 28ⁿ eta 29ⁿ. } Buruilako 16ⁿ, 18ⁿ eta 19ⁿ.
Maiatzeko 27ⁿ, 29ⁿ eta 30ⁿ. } Abentuko 16ⁿ, 18ⁿ eta 19ⁿ.

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi ulhunte phartezkoa baranthailako 13^{an}; ezta ikhousiren Uskal-Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa baranthailako 28^{an}; pharte ikhousiren da Uskal-Herrian. — Ekhi ulhunte osoa, agorrilako 29^{an}; ezta ikhousiren Uskal-Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa agorrilako 22^{an}; pharte ikhousiren da Uskal-Herrian.






FOREL


HANITCH KHASU HOUNI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigarren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arround. Bigarren arraldia, 1893^{an} hasirik, daigun ourthian urhentzekoa da.



ERRAN ZAHAR



Atzerri, otserri.

Asiak batzutan derakhaio gosia.

Athorrak hounkiten, bena aragiak etchekiten.

Ago zorgaitzari ekhuru, eta hounari haiduru.

Aorhide bien alhor artian hounki dago zedarria.

Aorthen haorrak haz gero ilhiak ilaz

Aozilaria nekeziasko ezkutaria.

Aozilaria, sarista ezak ountsa barataria,
Ezpere hire zuzena eztaikidik balia.


Atsegina bikun da, denian laster egina.

Atchoa, lehia duna hiltzera ?

Abil atzerrira bizitzera.



BIGA, AHUNTZA ETA ARDIA LEHOAREKIN



Bigak, ahuntzak eta hoiien

Ahizpa ardiak
Lehoarekin behin.
Hitz egin zien
Ezarteko botin,
Bere galtziak
Eta irabaziak

Orcin bat hatzamana zen izan

Ahuntzaren zephoan.
Bere laguner ahuntzak
Igorten du berria.
Lagunak helt' ondoan,
Lehoaren aztaparrak
Egiten du khoutia :
Laor gira, dio lehoak,
Jateko hounen.

Laor zathitan du orcina ezarten,

Eta lehena beretzat begiratzen :

Hao enia, deie erraiten,

Zeren beniz errege lehoa deitzen ;

Ihourk hortakoz eztu hitzik erranen.

Bigerrena zuzenez enia dago,

Ziek beno beniz azkarrago,

Pherestiena bezala hirourgerrena nahi dit ukhen,

Eta ihourk erek laogerrena badu hounkitzen

Berhala dut urkhatzen.





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- Ⓒ a. l. 7ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 34^{min}
 Ⓓ a. b. 24ⁿ, arratsko 10^{or} eterditan
 Ⓔ l. l. 23ⁿ, goizanko 2^{or}. eta 51^{min}
 Ⓕ a. o. 30ⁿ, goizanko 9^{or}. eta 5^{min}

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓒ a. l. 6ⁿ, gaiherdi eta 48^{min}
 Ⓓ a. b. 13ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 22^{min}
 Ⓔ l. l. 21ⁿ, arratsko 9^{or} eta 24^{min}
 Ⓕ a. o. 28ⁿ, arratsko 8^{or} eta 11^{min}



- | | |
|-------------------|------------------------|
| 1 Astizken. | ZIRKONZISION |
| 2 Ostegun. | s. Makaire. |
| 3 Ostirale. | sa Jenevieva. |
| 4 Neskanegun. | sa Fausta. |
| 5 Igante. | sa Amelia. |
| 6 Astelehen. | APHARIZIO. |
| 7 Asteharte. | sa Melania. |
| 8 Astizken. | s. Luzien. |
| 9 Ostegun. | s. Julien. |
| 10 Ostirale. | s. Marzien. |
| 11 Neskanegun. | s. Teodoso. |
| 12 Igante. | sa <i>Taziena</i> . |
| 13 Astelehen. | s. Leonze. |
| 14 Asteharte. | sa Hilera. |
| 15 Astizken. | s. Phaole, erm. |
| 16 Ostegun. | s. Marzel. |
| 17 Ostirale. | s. Antoni. |
| 18 Neskanegun. | J. Phetir. Err. Jartia |
| 19 Igante. | s. <i>Kanut</i> . |
| 20 Astelehen. | s. Fabien eta Sebast. |
| 21 Asteharte. | sa Añes. |
| 22 Astizken. | s. Bizente. |
| 23 Ostegun. | A. B. <i>Ezkantz</i> |
| 24 Ostirale. | s. Timote. |
| 25 Neskanegun. | J. Phaoles kon. |
| 26 Igante. | s. <i>Polikarpe</i> . |
| 27 Astelehen. | s. Johane Kris. |
| 28 Asteharte. | s. Amadeo. |
| 29 Astizken. | s. Franz. Sal. |
| 30 Ostegun. | sa Martina. |
| 31 Ostirale. | s. Petiri Nol. |

- | | |
|----------------------------|------------------------|
| 1 Neskanegun. | s. Inazio. |
| 2 Ig. Setuajes. | KHANDERALLU |
| 3 Astelehen. | s. Blasi. |
| 4 Asteharte. | sa Jana, Val. |
| 5 Astizken. | sa Agata. |
| 6 Ostegun. | s. Aman. |
| 7 Ostirale. | s. Romual. |
| 8 Neskanegun. | s. Johane Mat. |
| 9 Igante. | <i>Setsajesimo</i> |
| 10 Astelehen. | sa Eskolaztika. |
| 11 Asteharte. | A. B. Lourdakoa. |
| 12 Astizken. | s. Tita. |
| 13 Ostegun. | s. Jilbert. |
| 14 Ostirale. | s. Valenti. |
| 15 Neskanegun. | s. Faosti. |
| 16 Igante. | <i>Kinkajesimo.</i> |
| 17 Astelehen. | sa Hiji. |
| 18 Asteharte. | s. Flavien. |
| 19 Astizken. | HAOSTE |
| 20 Ostegun. | s. Eucher. |
| 21 Ostirale. | <i>Elhorr. Khor.</i> |
| 22 Neskanegun. | J. Petir. Ant. Jart. |
| 23 Igante. | GOROZUM 1 ^a |
| 24 Astelehen. | s. Dosite. |
| 25 Asteharte. | J. MATHIAS, ap. |
| 26 Astiz. <i>IV Th. B.</i> | s. Zezaire. |
| 27 Ostegun. | sa Batilda. |
| 28 Ostir. <i>IV Th. B.</i> | J. K. Lantza eta Itz. |
| 29 Nesk. <i>IV Th. B.</i> | s. Rufi. |



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☞ a. l. 6, goizanko 11^{or} eta 38^m.
- a. b. 14ⁿ, goizanko 10^{or} eta 57^m.
- ☞ l. l. 22ⁿ, eguerdi eta 6^m.
- ☞ a. o. 29, goizanko 5^{or} eta 31^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☞ a. l. 5ⁿ, gaiherdi eta 34^m.
- a. b. 13ⁿ, goizanko 4^{or} eta 32^m.
- ☞ l. l. 20ⁿ, arratseko 10^{or} eta 56^m.
- ☞ a. o. 27ⁿ, arrastiriko^{or} 1 eta 57^m.




- 1 **Ig.** Goroz. 2^a s. LEON, Baion.
- 2 Astelehen. s. Zinplize
- 3 Asteharte. s^a Kunegonda.
- 4 Astizken. s. Kasimir.
- 5 Ostegun. s. Luperkule.
- 6 Ostirale. *Suario Sia.*
- 7 Neskanegun. s. Tomas Akin.
- 8 **Igante.** *Gorozum.* 3^a
- 9 Astelehen. s^a Frantzesa.
- 10 Asteharte. 40 Martirak.
- 11 Ostizken. s. Konstanti.
- 12 Ostegun. s. Greg. hand.
- 13 Ostirale. *J. K. Zaori Sk.*
- 14 Neskanegun. s^a Matilda.
- 15 **Igante.** *Gorozum.* 4^a.
- 16 Astelehen. s. Ziriaka.
- 17 Asteharte. s. Patrik.
- 18 Astizken. *J. Gabriel. ark.*
- 19 Ostegun. s. JUSEF.
- 20 Ostirale. *J. K. Odol Prez.*
- 21 Neskanegun. s. Benedit.
- 22 **Igante.** PASIONIA.
- 23 Astelehen. s^a Pelajia.
- 24 Asteharte. s. Agapit.
- 25 Astizken. A. D. M. ANONTZ.
- 26 Ostegun. s. Braolio.
- 27 Ostirale. *A. B. Dolor.*
- 28 Neskanegun. s. Justeñ.
- 29 **Igante.** ERRAMU.
- 30 Astelehen. s. Amadeo.
- 31 Asteharte. s^a Balbina.

- 1 Astizken. s. Hugés.
- 2 Ostegun. *Osteg. Saintu.*
- 3 Ostirale. *Ostr. Saintu.*
- 4 Neskanegun. *Nesk. Saintu.*
- 5 **Igante.** BAZKO.
- 6 Astelehen. s. Sisto.
- 7 Asteharte. s. Herman.
- 8 Astizken. s. Albert.
- 9 Ostegun. s. Akazio.
- 10 Ostirale. s. Makari.
- 11 Neskanegun. s. Leon hand.
- 12 **Igante.** 1. s. *Jules.*
- 13 Astelehen. s^a Ermenegild.
- 14 Asteharte. s. Justeñ.
- 15 Astizken. s^a Anasztasia.
- 16 Ostegun. s^a *Grazi.*
- 17 Ostirale. s. Anizet.
- 18 Neskanegun. s. Elutero.
- 19 **Igante.** 2. s. *Leon IX.*
- 20 Astelehen. s. Teotimo.
- 21 Asteharte. s. Anzelmo.
- 22 Astizken. s. Soter eta Kaio.
- 23 Ostegun. s. Jorji.
- 24 Ostirale. s. Zerazi.
- 25 Neskanegun. J. MARK, Eb.
- 26 **Igante.** 3. s. Klet & Marz.
- 27 Astelehen. s. Zerazio.
- 28 Asteharte. J. Phaole, K.
- 29 Astizken. s. Petiri, m.
- 30 Ostegun. s^a Katalina.



AITA SAINTIAREN ERAKASPENAK



Khirstien eginbide gehienen gaineko guthunetik.

« **F**EDIARI huts egitia lizate, dudan ezartia arimen gobernia eztela emanik Elizari baizik, eta hortako, eztiala zuzenik aotortate zibilak (edo gizonen gehiengoak.) Ainikere ezdutu Jesus Kristek eman zelietako erroumaren giltzak Zesari edo enperadoriari, bena bai Phetiriri. Politikaren eta Erreljioniaren arteko erakaspén hortarik jalkhitzen dira heben eman nahi deitziégun jakinbide handiak.

« Khirsti algargoako eta gobernamentu politikoen artian, nolako nahi horik izan ditian, errepublika edo erregegoa, bada desbardintarzun nabarigarri dena. Khirsti algargoak (zoizetatiak) balin badu ere haiekin zerbait uduripen, haietarik berhezten da, bere hastapenaz, bere prinzipioaz eta bere izatiaz.

« Badu arren Elizak bizitzeko eta bere zaintzeko zuzena bere izatiaren araoko chede eta legez. Nola beita bestalde algargoa bethegin edo perfektbat beraortarik, eta beste gizonek egin zoizetate guzien gañeko, eztu ihoulere baitesten partider menpetzia, eta hori zuzenez eta eginbidez; ez etare politikaren nahikunte aldakorretara plegatzia edo haiekin ohatzia.

« Chede beraren araoera, bere zuzena begiratzén dialarik eta bestenena errespetatzen, eginbidebat bezala edukitzen du ezachol izatia gobernatzeko molde subertentako eta nazione khirstien instituzione zibilentako. Eta gobernamentu molde desbardinetan, oun-

hesten dutu berheziki Erreljionia eta khristitarzuneko aztura hounak errespetatzen dutienak.

« Dudagabeda, politikan edo zozietate zibilaren gobernun gañen, ukhen ditroiela gizonek bere idea berheziak ; eta batek eta bestek, errespetatzen dutielarik doiaren eta egiaren zuzenak, tcherkatzen ahal diela gogoan dutienen burutan joan eraztia, ororen houna hola jaoki nahiz.

« Bena nahi ukheitia Eliza nahas dadin partiden guduak hoiien artian, eta hartan bermatzia burkhiden ehikiagogarhaitziagatik, hori da Erreljione saintiaren gaichki erabiltia. Aitzitik, partida guziek behar lukeie algar enthelegatu Erreljioniaren errespetuz unguuratzeke eta haren etsaier buru egiteko. Haboro dena, egiazko politika hounak behar beitutu sustengatu aztura hounak eta Erreljioniaren eginbide saintiak, harek egin beharretarrik lehenak eta bethierekoak izan behar luke Erreljione katolikoaren entresen althe jartia. Entres saintu hourak inkatururik direnian, katolikoan artian ezta behar burkhidegoarik ; guzien gogokuntek, guzien nahiek behar beitie lehiatu Erreljioniari heltzera : Erreljionia beita entres orotako handiera, eta beste guziek hari habe egin behar beitie.

« Hortaz orano haborochago mintzatzia beharrezko dela ouste dut.

« Elizak eta zozietate politikoak badie bakhoitzak bere gehiengoa berhezia ; bena horregatik eztira algarrganik berhezirik, eta, gutiago orano, algarren etsai.

« Gizona ezta sorkhuraz khorpitz bat berere. Badu arimabat, eta bakian lagunen artian bizitzez, hortara erazteko eginik izan beitira zozietate zibilak, egurukitzen dutu khorpitzeko abantallak eta aiseriak ; bena orotan gainti, arimako hounak, haren bethi hobetzia, hori egiten beitu berthutiaren ezagutziak eta pratikatziak. Eta berthutiaren ezagutze eta pratikatze hori ezta egiazko Erreljioniaz baizik ar-

diesten. Hartakoz munduko chede ezarle eta lege egilek ezte deus behar manhatu edo debetatu, ez zozietate zibilaren, ez Errelijioniaren urhenburu berhezier aitziz doanik.

« Ezta arren orobat Elizarentako, houlako edo halako izan ditian nazionen gobernatzeko ezari legiak, ez ordena zibil eta politikako legiak direno, bena ordena hortarik jalkitzen direlako, eta Elizaren zuzentan sartzen beitira.

« Elizak ukhen du orano Jinkoaganik, Errelijioniari ogen egin liokeien cheder buhurtzeko mania ; eta egin ahalaren bethi egiteko, Ebanjelio saintiaren berthutia sar dadin populien legetan eta chedetan. Eta nazionen buruzagi direnen gogokuntek gehienik erazten beitie haien zorthia, Elizak ezditiro ez berma ez eta urgaitz beraren etsai direla ezagutzen dutianak, agerian bere zuzenak zaphatzen dutienak eta errelijioniaren eta ordena zibilaren arteko lothgarriak ethen nahi dutienak. Aitzitik haren eginbidia da lagungoa emaitia Elizaren eta gobernamentien arteko egitekoe-tan gogoeta sanoak dutiener, eta haien aornitzez populien houna nahiz ari direner.

« Erakaspén hoier jarraikitzián dago chede, katoliko guzien bizitze publikoa gobernatu behar diana. Orogen burian, algarren arteko egitekoetan pharte hartzera deithurik denak behar dutu sustengatu zuhur eta pherestutako ezaguturik diren gigonak, eta utchuraz Errelijione katolikoaren hounetan aritzekoak direnak ; eta ihoulazko arrazoegatik elizate haizu haien ordari Errelijioniarién etsai direnen burutan joan eraztia, haier botzaren emaitia.


« Hortik orano ageri da zombat harainti den katolikoentako algarren gogoetan sartzia eta algarrekin akort ebiltia, berheziki oraiko denboretan noun, Errelijione saintiari etsaiak, bere indarrak algarganaturik, jatzartzen beitira antze eta errabia handirekin.



J. Harizpe Marechala.



**HARIZPE MARECHALA
ETA USKALDUN CHAZURRAK**



JOHANE Isidoro Harizpe sortu zen Baigorri
1768^{an}, abentuko 7^{an}. Haren aita Johane, Azkarate
Harizpeko seme zen eta haren ama Jana Hariz-
mendi, Baigorri Aincharteko alhaba. Eskolak urhentu,
eta Harizpe egon zen Baiounan arte aphurrez nego-

zioaren ikhasteko, eta gero utzuli Baigorriat etchenkoeganat.

Hogeita laor ourthe bazutian nouiz eta, Erreboluzione handiko denboran, gobernamentiak galthatu beitzian heltura Uskal herriko gazteriari, joaiteko Españaiko mugetara, etsaia sar ezledin Franziaiko lurretan. Bena etzien Uskaldunek uguruki adelatzeko, gobernamentiaren deia : ezi, 1792^{eko} urrietalabait, laor konpañia baziren bildurik beraien nahiz, Dona Joane ungurunetan, abiatzeko maniaren haiduru. Konpañia haien aintzindariak ziren Harizpe, Iriart, Lasala eta Berindoaga. Abentu hatsarrekoz laor konpañia haietan baziren 467 soldado eta laster beste sei konpañia eginik izan ziren, hamarrak boti heltzen beitziren hamazortzi ehun gizounetara.

Bortu goran elhurra hourtu bezain sarri, apherila altiari, gerla hasi zen Españoulen et Frantzesen artian. Lehen gerlakari españoulak, frantzesak beno haboro zirelako, sarthu ziren Frantziako lurretan, goure soldadoak ihesiari emaiten zielarik. Ordian Harizpe kapitain gaztiak, Arrolako kukula unguriala bildu zutian Bankako Olhetan gudukan izanik gibelialat ari ziren tropen ondarrak. Haien aintzindarietarik bat zaoriz estalirik zen ordunkoz, eta bestia, gerlan aritez z tolliturik.

Arrola botchia Val-Carlos, Dona-Joane eta Baigorri arballen sargier phara beitzen, bazerion segur ountsa begiraturik izan ledin, eta Uskaldunak han tink egon behar ziren zer nahi khostarik. Hirour mila Españoul abiatu ziren Arrola botchia begiratzen zien bost ehun Uskalduner buruz, mendia gora ; bena Harizpe kapitainak hain ountsa eman zutian han behen bere gizounak, noun behar ukhen beitzen etsaia berritan gibelialat utzuli. Hirour gerren aldikorik indarkatzen dira Españoulak Harizperen chazurrak botchu ondotik jalkhi erazi nahiz, bena debalde, eta gibel utzuli behartzen zaie. Hain sarri Harispek mania emaiten dere sol-

dato Uskalduner jarraikiteko etsaiari, eitzirik botchia. Halaz Baigorritarrek bost ehun Españooul presouner egin zutien khantuko mendi hegiala heltu gabe, erran nahi beita, berak ziren beno haboro presouner. Arte hartan españooul *convoi* bat, Baigorria hullantzen ari zena, gainti orotarik unguratu zien laborari, gizon zahar, emazte eta hanko jentek, batak dalluz, bestiak ihizekako tresnaz armaturik. Hañ ountsa noun bortchatu beitzutien *convoi* hartako soldadoak armen eta bereki ekharten zutien bizigarri eta gerlako munizionen emaitera. Hourak oro eroan zutien boztario handiekin, Arrolako botchia begiratu zian kapitañ gaztiaren tropen aitziniala.

Hantik arte luze gabe, eskuñeko divisioniak, Laphourdin beitzagoan, behar ukhen zian eman gibelialat, etsaia azkarregiz. Ordian zutien juntatu algarri uskaldun konpañiak hirour batalloen egiteko. Harizpe haitaturik izan zen bigerrenaren gehien, ordartino egitekoetan erakoutsi zian balhune eta korajiarren saritan.

Españoulek Bacha-Nabarren zen divisioniari (hartan ziren uskaldun chazurrak) hirouretan jatzarri ziren, bena etzien burutu haren eretzez alda eraztia. Ordian izan ziren egitekoetan ere, Harizpe gothorki eta balhunereki kobratu zen.

Hirour soldado frantzes oztek behar zien bere aldian ataki etsaia. Hortakoz lehenak, Harizpe gehientako zianak, ukhen zian Berdaitzeko garatiaz (edo lephoaz) jabetzeko mania. Etsaia tinki plantaturik zen Aldudan. Ouriskako gaztelu aphanian ere bazutian soldado tropabat azkarra bi kanouekin.

Zortzi ehun chazur uskaldun badoatza Aldudan zen etsaiari buruz chenda gaitz elibati gainti, gidari zutielarik La Victoire jenerala eta Harizpe komendanta. Jenerala lehen deskargietan ehorik izan zen, eta Harizpe ordaritako ukhen zian. Uskaldun chazurrak bethi goiti eman zien, eta zounbait, errabiatu batetarik

landan, sarthu ziren gaztelian, presouneregiten zutielarik kolonel espanoula, hogeita bat ofizier eta 281 soldado.

Gudu hortarik landan, Uskaldunak oro bildu zutien brigada erdibatetan, Harizperekiko komendant bezala. Baziren oro hirour milaren heña ofizierekin.

Bena 1794-1795^{eko} negia ezinago hotz eta borthitz izan zen, eta bi gaintiek behar ukhen zien gerla egitetik baratu bedatsia hel artekan. Haroa althe ukhen zien bezain sarri, Frantzesak eraitchi ziren Baztanko arballan, eta han izan ziren guduketan ederki joan ondoan, Uskaldun chazurrak sarthu ziren Irurzun hirian. Hartan tink egoiteko mania ukhen zien, eta berdenboran behar zien baratu aitzina jitetik, Irunean eta hiri horren ungurunetan zegoen armada. Laster Balesen egin behar zien hongoa edo bakia, eta Frantziaren eta Espanoulen arteko gerla urhentu. Uskaldun chazurrak Frantziat utzuli ziren. Laorgerren batalloa ere, Ziberoutarra, Atharratzen sarthu zen berdenboran 720 soldado eta ofizierekin.

Nahi bada etchen ziren, Uskaldun chazurrak Harizperen manhaspenian egon behar ziren 1798 ourthiala drano. Hantik aitz ina gizoun hanitche konjidak ukhenik, etzen haboro baratu uskaldun batalloubat baizik. Malerouski Frantziak etzian luzaztcheste behar bakia: ezi horra noun jiten ari diren mente urhentzeko gerlak. Ordian berriz uskaldun konpañiak eta bigerren batalloubat armen hartzera deithurik izan ziren, eta igorririk Dijon hiriala erreserbu tropa bezala baliatzeko. Helturik Dijonera pharte agorrila 22^{an}, eta bestiak azaro 5^{an}, 1800ⁿ ourthian, joan behartu zeren Italiako gerlalat eta han armadak egari guduketan pharte hartu zien.

Hongoabat ordian ere eginik izan zen, eta berriz uskaldun batallouak utzuli ziren Frantziat. Leman departamentian igaraitian baziren 583. Bestalde bazen ospitaletan baraturik 161 soldado eta ofizier.

Zerbutchuko orano houn ziren Uskaldunak 15^{an} eta 17^{an} brigada erdi arhinetarat botitu zutien eta offzierak etcherat igorri zerbutchia urhenturik zien gizonekin.

Hortan akabatu dira uskaldun chazurrak. Ezta izan geroztik Frantzian, Uskaldunez berez eginik troparik. Harizpek ere bestek bezala, konjit ukhen zian. Bena bihotza histen beitzeron soldadogoaren eiztiak, galthatu zian zerbutchian arrasartzera, eta hartakoz herساتu zen Moncey jeneralari, Españaکو mugetan gerla egitian ezagutu ziana. Jeneral aiphatu harrek, beitzakian galtho egiliaren kalitate handien eta merechien berri, bere *état-major* ian sar erazi zian.

Arte llaburren burian ezari zien Harizpe 16 gerren brigada erdiko gehien, eta hartarik egin zian Frantziako armadetan zen errejimentu ederrenetarik eta aiphatienetarik bat. Tyrol-eko gerlan, 1805^{an}, amiagariki erabili zian, eta ororen gañetik, Prusian, Ienako batallan 1806^{an}, urrieta 14^{an}. Gutik egin zian ezpeitzen han hil: handizki blesaturik izan zen.

Ienako batallatik landan Harizpe brigadako jeneral igan, eta grado harekin egin zian 1807^{an} Poloniako kanpaña, armada handian. Gero berriz Españałat joan eta han lehen izan zian bezañ ots handia bildu. 1810 urrietako 20^{an} *général de division* ezari zian enperadoriak eta egin kounte, eta orano *grand officier de la Légion d'honneur*. Napoleon handiaren azken denboretan kargu handirik erabili zian Harizpek, eta geroztik ere, bi arte erretreta ukheiten zialarik.

Napoleon hirourgerrenak Harizperi egin zeron ouhourez gaintika eta azkenian izentatu *Maréchal de France*, armadetako kargu handiena beita. Halaz senadoretegian sartzeko zuzena bazian. Marechaltuz geroz laor ourtheren burian hil izan zen Harizpe Lakarrako jaoregian, bere bizi denbora oro pherestuki eta gothorki eroanik. Ezkounturik izan zen Etchaozoko aitoralhababatekin, eta semebat ere sorthu zeron, gazterik hil zena. Holaz itzaltu da Harizperen aria.



ESKOLATIK PRESOUNTEGIALA

GOUREgovernazaliak, hamazortzi ourthe hountan, berheziki jente chehiaren eskolatzeko egin dutien gaiza amiragarriez mintzatzen ari zaizku ahal oroz, eta ahoaren bethia elhe badie eskolaren kounkieginen ezagut erazteko, han heben egiten dutien pheredikietan.

Izan diren gobernietan batek ere orano ez umen zian holakorik egin, ez abiatu, ez eta ametsetarik erabili ere. Bena aitzinekoek ezin egin ziena, haiek burutu die, hain ountsa houn ezpelaiteke deus hobeki eginik. Eskola etche berriak baizik ezpalutie egin, eta beste hanitchtto badie erazirik, aski lizate jaon haien izenen hospatzeko mundiak liraieno, mihibat mintzatzeko laitekiano eta beharribat entzuteko.

Nola gerokoek ahatz lirokie hanbat hounki dadukan gaizabat? Ezi eskola, dioienaz, hounki guzien uthurria da ; eskolaturik denak eztu deusen ere eskazik : bide guziak irekirik dirade haren aitzinian, era deus ezta haren helgian eztenik. Halakoak eztuke errelijione beharrik, beraortarik beituke doia argi ikhous- teko zer egin, doia indar ere bai dakianari jarraikit- zeko.

Jakintsu totots batek zioan, diala hogeibat ourthe, beste guzien haro eta espantien bilzera joanik zer bilzarren batetan : « *Egiguzie eskola'etche, orano eskol'etche, bethi eskol'etche : ezi eskolabat haborok egiten du presountegibat gutiago.* »

Egin du arren gobierniak eskola eta eskola, eskola mouthikoentako, eskola neskatilentako, goure sakoletan hartuz diharria, eta sakoletan diharurik etzenian, sakolahutsak zorretan sar eraztez. Hala dirade emen- datu azkenekoz eskoletchiak, eta hor dira jaoregiak be-

zañ eder, batere beharrik etzen bazterretan, ountsatto, hutsik dagotzenak, gutiz bestek ezpeitie orano ikhousi, ez ikhousiko ere araoz, jasan litirokien eskolatiarren erdia.

Jakin beharra lizate orai eskola eder hoiek ukhen dutienez egilek hitzamaiten zeizkien ondorio hospazariak. Ezagutzen dut eta aithortzen berhala, buru batetik berere, eskolak eman diala gobernukoek ugu-rukiten ziena : ezi ehi ageri da eskoletan hanitch eta hanitch haorrek galtzen diela bere bouhasoen erreligionia. Errana zen mundu hountako hara hounaketan gidatzeko, eztugula batere errelijione beharrik, eta eskolak emaiten deizkun argiak, edo sorkhuraz dutugunak, hortako aski direla.

Eztut galthatuko, aiphatu dudan jaon aho beroak agintzen zian bezala, eskola berri irekirik izan den bezainbeste presountegi hersi dienez. Izari hortan aspaldi du ezlizatiala baratu presountegi bakhoitzik ere Frantzian. Areta umen dira han hebenka zounbait orano ; behar ere, dioienaz, ezpeitira hutsik, hullanik ere.

Alabena, bere erranaz jaon aiphatu dudanak enzun erazi nahi zian, eskolatziarekin chuchentuko zirela jentiak, eta oro eskolaturik ziratekinian, etzaitekiala haboro gaichtagilerik. Eta noula orai izkiribatzen eztakienik ezpeita guti baizik, et aphurrago beitira irakourten berere eztakienak, gaichtagile hanitchez gutiago higatu behar lizate bazterretan, diala hama-bost edo hogeï ourthe beno.

Areta egun oroz entzuten dutugun erranek eztioie holakorik. Bena horrez mintzatzeraz, eztut edo zouñen errana sinhetsi nahi. Aspaldikoa da jentia gaichtotuz doalako errana. Eitzirik bazterrialat gogo gaichtozkoek eta bekhaitziek erasten deizkienak, ditzagun entzun gobernuko gizounak beraketa haien althekoak, ditzagun irakour haien gasetak.

Ourthe guziez galthatzen ohi du gobernial pre-

sountegietako hounainbesteko diharuketabat. Diala hogeï ourthe, haientakoa behar zian hamalao miliouren heña, ezpeitzen segurki guti ; (gaichtagiliak, ala barnetik ala kanpotik, gaizki egiten ari zaizku.) Eskola berriak egin aitzinetik igorten zian basa bazterretako eskoletan berbera hirour etan hogeita hirour miliou eta erdi. Geroztik eskola etchetan gastatu du lehen hamar ourthetan *lao ehun miliou* ; landankoetan haboro orano igorririk izan da, eta orai bada despendiaturik eskola etchetan miliartbat hullen. Bestalde eskola berriak eginezgeroz, ourthekal haietan igortendu ehun miliouz goiti eta ourthe urhentzen den hao ez aiphatzeko baizik, ehun eta hamazazpi miliou.

Biguntu direnaz geroz eskola laikoak eta haiiek erazi joanphidiak, uduri luke, aiphatu jaonaren hitzaren arao, erdiaz gutiturik dela presountegiek jaten dien diharia. Bena eskolak emendatu badira, ezta gutiago egia, presountegiak ere emendatu direla, eta haietan igorten den diharia goraturik zen laor miliouez igaran ourthian, diala hogeï ourthe ziren hamalaoak beno haboro.


Arren jakintsiaren aiphatu errana huntzkeria ederra zen. Orai ikhouston dugu jente eskolatu haboro balin bada, gaichkile gehiago badela, eta haietarik guti, ountsa guti baizik ezta eskoletan izan eztenik. Eta orano gaichkigiliak oro hatzeman balitze! Bena goberniaren gasetak berak aithor du lehen beno haboro, araoka, eskapatzen dela. Diala hogeï ourthe, tribunaletan, ezin hatzamanez agertzen etzenik bazen 53 ehunentako ; diala bost ourthe baziren 63, ehunaren hamar haboro ; ouhouñetan ezte orai hatzamanen hamar retarik bat baizik, eta etcher su ezarletarik laordena. Halaber burduñbidetan treñen irallzera iseiatu direnentako.

Gaichki eginen araoka arren, lehen beno gutiago gaichkigile da presountegietan ; ezta horrek erran nahi hatik gaichkile hatzamanak gutiago direla. Ezi be-

har ukhen dutie presountegi zounbait handitu, eta berri ere egin. Diala hogeï ourthe sarthu ziren presountegietan ehun eta berrogeï mila gaichkigile, 1892^m sarthu zen berrehun eta berrogeïta bederatzu mila, adin orotako. Zer emendioa hogeï ourthez ! eta orano zounbat haboro elizate diala hogeï ourtheren araoiala hatzaman balitze ?



LEGAR BERRIAK ETA DAIGUN JESAITIA



MINISTRO ohibatek zioan, diala hirour etan hogeï ourthe, ordunko deputatier : « Egiguzie politika hounik, eta eginen deriziegu finantza hounik. » Oraiko solazak besterik direla uduri du. Aorthenko budjeta ezinago nekez hountu du khanberak ; bost hilabetez ourtheko khountia ezin eginez behar ukhen die ezari *douzièmes provisoires* deitzen dutienak. Daigun ourthekoaz zer dateke ? Menturaz bertanchago hountuko die, bozkak hullantzen ari direlako. Zer nahi biz, Ribot ministroak egin budjet geia badugu zounbait hilabete hountan. Dugun ikhous zer den hartan berriagorik.

1893^m despendio bazen aitzineko ourthian beno haboro, 66 milou ; ondokoan, 1893^m beno haboro, 63 miliou ; aorthen bazen igarian beno haboro, 50 miliou. Eijer beita bethi *économie* elhiaz ahoaren bethia dien goure lege egilentako ? Daigun ourtheko budjetak noula erabili behar dutu goure sosak ? Ez segur hobeki. Ribot ministroak dioanaz, « 1896^{ko} budjeta kondizione gaichtoetan jiten zaiku. Eztukegu arranden aldatziak eman zeikun mouzkina, doanako thallak ez-ditzakegu gora, ezdutukegu ere, azken ourthetako zounbait jinphide, (ressources exceptionnelles zire-

nak). » Noula arren burutan joanen dira egitekoetan ?

Aita familiatako chuchenbatek, ikhoustez bere egitekoak hañ apha, ezluke deus besterik gogoan joanphiden arhintzia baizik. Khountiak behar bezala edukitzen dutianak ehi ikhousten du zertan gaintiak egiten tian, eta ahalak oro egin litiro gainti haien bardintzeko.

Bena aita familiatakobaten egitekoen bardintzeko houn den bidia, hora berbera die eskuñ edo esker eizten jarraiki gabe goure gobernazalek, Frantziako egitekoen denian aiphu : Zer ? bena etzira zoure beithan, erran lioie gogo hounez ; kargulant budjetaz bizi direnen nounbriaren aphaltzia ; aitzindari gehien zombaiten alharguner egiten deitzen zahar bihi nasaien idokitia ; burduñ bide behargabe, eta despendio baizik eraziko direnen ez egitia (bada hetarik zombait, kilometra khosta beita ehun mila liberaz goiti ;) ez gehiago eskola etcherik jaoregien pare, eta aiphatu burduñ bidiak bezañ behar gabetarik direnen ez egitia ; ... bena hola aritzia lukezu errepublikaren irallzia !

Ourthe guziez hola da. Budjeta azken thenorian khanberala heltzen da ; usian bazterrian eizten die, guti edo hanitch, elheka zombaiten lehenik hountu nahiz edo beharrez, budjeta berant hasirik laster hounturik da khanberan, lasterrago orano senadoretegian, eta chuchentzeko makhurrak eitzirik behin ere heltzen ezten geroalat.

Eta ordian, phakatu behar beitira budjeteko hartzelantak, ezta baratzen bi bide baizik, houna hartu nahi eztenian : legarren emendatzia edo berrien ezratia, aitzinekoen gañetik, edo sos jesaitia.

Ahatze zaie araoz hain goratik 1878^o geroz thai gabe arrapikatu deikien pherdo ederra : *Ezlegar e nendiorik, ez eta jesaitte berririk*. Ribot ministroak khumitatzek gutu sei legar berrien phakatzera, emanen beitie goberniari, haren oustez :

Ordeñuz eitzirik diren hountarzunen gañeko dretchoen gorentziak, 25 milou ; eta bat. — Michkandietan gañeko legarra (buruzagiek phakatzekoa dateke), 10 miliou ; eta biga. — Legar berhezibat zamari eta karrochetan gañenekoak, miliou ; eta hirour. — Atzeko arrandazale paperetan gañeko thallak, 14 miliou ; eta laor. — Aljeriako doanek, 4 miliou ; eta bost. — Jokian aritzeko kartetan gañeko legarrak, miliou eta 200 mila libera ; eta sei !

Legar berri hoietarik bat baizik eztut cheheroki ikhertuko oraikoz, michkandietan gañekoa. Eztateke orotan bardin, eta phakatu beharko die buruzagiek hounain beste, dutien mithilen michkandien zentziaren eta hiriaren handigoaren araoka ; neskatoen, hiri handietan basa bazterretan bezala, mithilentako phakatukoden legarraren erdia ; herria handiago eta legarra handiago. Zer agituko da legar horrekin? Jente aberats hanitch ezpeitira lehen bezañ aisan, arrandak tchipituz geroz, eztie hainbeste michkandi begiratuko ; laor dianak behar bada biga igorriko dutu : Duhulak (le trésor) eztuke hola irabazia handi eta nekezalen miseriak handituren dira ezpeitukie hañ ehiki plazarik khaosituren.

Gobernuko budjeta ezin bardintian balin bada, eztie departamentienek osagarria hanitchez hobe. Frantziako zorra, gobernu gisa, 30 miliartez goiti badao, departamentiek egina helzen da miliart erdi benogorachago, 532 miliou 849 mila eta zounbait ehun liberatara. Goure departamentiak berak badu chifru hortan bere phartia, 4 miliou, 466 mila eta 233 libera-zorra.

Eta ezta ouste ukhen behar departamentu aberatsenetan, edo hiri handiagoak direnetan, zorra handienik dela. Ezi Parise den departamentiak eztu 43 mila eta 191 liberaren zorra baizik ; Gironde denak (hartan da Bordele) badu 9 miliou eta 546 mila liberarena ; Bouches-du-Rhône denarena (hartan da Marseille hiri

handia), helzen da 8 miliou eta 920 mila liberatara ; Loire-Inférieure denak badu zorretan 8 milou eta 340 mila libera.

Aldiz, Isère, departamentu praobebat denak, zor du 15 miliou eta 911 mila libera ; Finistère denak, 11 miliou eta 382 mila ; Dordogne denak, 17 miliou eta 720 mila.

Zerk gogoaratuko dereiku chifru hoiien ikhertziak ? zounbait departamentuk hain zor handiak badutie, du da gabe, gaichki gobernaturik direlako. Eta horra zertako bazerion, behar ordian, ez nour nahiren igortia kontsellu jeneral etarat. Ahalaz ezlizate izentatu behar gizoun chuchen eta zuhur elibat baizik, egitekoetan trebe, eta jakintsu direnak, departamentiaren beharuniak ezagutzen dutienak eta besteren egitekoen burutan joan erazteko ezariko dienak bere hountarzunen erabilteko bezanbat artha eta antsia.

Bena goberniaren eta departamentien zorrek eztekie ahatz erazi behar herriena. Houra ere hor da, helzen dena hirour miliart eta 296 mila liberatara. Igaran ourtheho chifrien khountiak eman dutie gobernukoek. Despendioak heltu dira 1894^{an}, 681 miliou eta 851 mila liberatara ; jinphidetarik izan da 719 miliou, bena lehen chifrian eztutie khountatu credits supplémentaires deitzen direnak. Gobernuko budjetetan kredit haiek 1887^{ik} eta 1894^{ala} gorent erazi dutie ehungerenak 135 miliouz eta 180 etara ; zounbait herritan ere gorentu dira erdiaz.

1877^{an} herrien zorra 2 miliart eta 745 mila liberatkoa zen ; arren igaran ourthehoz gorenturik zen 551 miliouz. Noula jesaite berri egin beitie edo egin gei, arte llaburen burian zor hori helturen da lao miliartetara.

Nouiz date arren nahaspoulla hoiien ooren urhentzia ?

Mintza gitian orai gobernukoek asmatzen dien daigun jesaitiaz. Eztie orano aiphatu bena ezta horrega-

tik gutiago egia goberniak jesan beharko diala, hanitch ordu berantu gabe, miliart baten heña. Ribot ministrioak, Bordelen pheredikubat egin dianian, azken maiatzian, erran du legar berri behar zela ; behinkoz azki zen eta etzutian botzemaile behazaliak sobera lotsa erazi nahi. Hatik, aspaldi danik gobernukoek eta haien althekoek, beren arteko konbersetan, sos jesan beharraz usu mintzo dira. Noun ere horak beitu mina han diala mihia da errana. Nahi lukie bai daigun deputatuka uguruki jesaite horrez mintzatu beno lehen, ondokoek eginen diela ahal gisa, eta ere berak berriz, gezur usatiak bouhatuz, burutan joaiteko. Bena beldur niz daigun ourthia eztela karatuko jesaitia egin gabe : ezi ezinbestialaturik dira orai danik.

Zounbat nahi gorderik ere ehi da ikhoustia ; orai artekan bide khakoenak hardu dutu goberniak jesaitiaren ahalaz berantzeko ; bena zor berriak hain dira handiturik noun haien chedatzia beharrezko beita.

Bada han heben 215 miliouen *obligations sexennaires* direnetarik ; bi ourthe gabe beharko da Banka Frantziakoari utzuli 140 miliou ; *Caisse des dépôts* denari zor da 573 miliou ; dette flottante dena helzen da 270 miliou etara. Hoiek orok egiten beitie miliarten goitizko zorbat.


Bihitzez, arrapikatzen ari zeizkielarik goure gorri kharioak eztzatekiala ez legar emendiorik ez jesaite berririk, ari ziren jesaiten thai gabe, eta gisa oroz. Jesaite eta gezur.

Horra zertara erazi gutian, jaozia edo bankarota egin artekan, gorrier konfidantcharen emaitiak.





SANT ANTONI



S AINTIEN artian populiak ouhouratzen eta othoitzzen ohi dianetarik bat da Dona Antoni. Harek ere badu Ziberoan, ez eliza eijerbat S. Blasik bezala, bena othoigia tchipibat, Muskilditik landan Bache-Nabarrari buruz den thinian. Badu bost ehun eta hameka ourthe haren hatsarriak. Ordu hartan gerla gaitzbat izanik bi aitorsemeren artian, bata Agramounteko jaona, bestia Lukuzekoa, Nabarrako erregiak bortchatu zutian houngoaren edo bakiaren egitera, eta houngoa haren orhitzarretan mania eman othoigiabaten egiteko Dona Antoniren ouhouretan. Othoigia hartan behar zutien mezak erran erregeren, aitzineko erregen arimen hounetan, eta bi aldetako gerlakari hil zirenentako. Segur izateko othoigia egin, eta hartaz artha hartuko ziela, erregek mehatchatu zian nourk ere haotseko beitzian houngoa, haren hountarnez gabetzia. Geroztik ourthoroz Ziberotarrak joaiten dira othoigiala saintiaren ouhourazera besta egunian, bagila 13^{an}.

Dona Antoni deitzen die Padoakoa, hiri hartan beitzagoen usienik. Bena sortzez Portugale Lisbonako zen. Bizkaiako zaharrek dioie S. Antoniren ama edo amaña uskalduna zela, Busturian sorthurik. Haorzaroa saintuki eroanik, goizik sarthu zen S. Agostiren fraidetan.

Gerochago uduritzen beitzeron komentubat etan egoitez etziala Jinko hounaren aski egiten ardietsi zian s. Frantzesen fraidetan sartzia. Bere buriari zioan beharbada igorriko ziela mahometanoer ebanjelioaren ezagut eraztera, eta balukiala halaz Jesusentako bere odolaren ichourteko zorhouna. Abiatu zen ere ountziz mahometano herri etarat buruz; bena eritu zen Afri-

kala heltu gabe eta behar ukhen zien eitzi Zizila deitzen dien islan.

Sendotuche zenian joan zen Asisa hirila han zirela-koz ordian S. Frantzes, ordenako aitzindari guziekin. Nahi zeron lehen gehienari galthatu igor lezan Italiako edo zouñ komentu tara, bena ez Portugaleat. Etzen egagun deusetako houn zatekiaga d. Antoni, eta nekez ardietsi zian gudiziatu grazia. Bena noularepait ardietsirik botzik eta Jinkoari eskerrak utzulgez joan zen bere etche berrilat.


Han zegoen ichiltarzunian, othoitz egiten eta bere arimaren berthutez bethatzen; bena gorderik bezala eta guziez ahazia. Aldibatez, algarrekin zirelarik dominikano et frantzizkano elibat, eta Antonio haiekin, Frantzizkanoen gehienak erran zeren dominikanoer behar ziela egun hartan pheredikubat eman haren komentian. Bena Dominikanoak gibeltu ziren zioielarik, berantto jakinez, ezin egiteko gaizabat zela.

Frantzikano aitzindariak erraiten dero ordian Antonio fraide gaztiari : « Zuk egiguzu pheredikia ; zoaza, mintzatuko zitzaizku Ezpiritu saintiak gogoalaturen deizunaz.

Antoni etzen aitzindariaren maniarri buhurtu zounbat guti pheredikatzeko tchestian zen. Tenoria jinik hasi zen, eta hañ ountsa eta hañ ederki eman zian pheredikia noun behazale dominikano eta frantziskanoek beitzioien, halakorik etziela behin here entzun.

Ordian zian egazutu komentuko gehienak zer baliatako gizona zian manupian, eta nausirik hoberenaren eskolala gogo hounez igorri. Gerochago Antonik berak orduz erakatsi zian bester teolojia ; bena besten eskolatziaik eizten bezteron zerbait hutsarte, hetaz baliatu zen hasteko bekhatiari egin behar zeron gerla thaigabia. Hain gorthurarekin ari zen, noun jentek, ikhousiz bazela apostolu berribat, bazter guzietarik saldoka haren pheredikietara joaiten beitzet-

Saint Antoni



A. O. Callaghan

zon. Azkenian, elizak tchিয়েgiz behazalen edeiteko, hasi zen kanpoan pheredikatzen.

Pheredikien urhentziala gabe etzen nigar eta hatsperen baizik, hain beitzen haren elhia bihotzen hounkigarri. Eta gero berak eta harekin zabilzan hanitch aphezek, kobesatu nahi zirener buru ezin emana bazien. Egia da ere, lan horrentako bazutiala behar ziren guziak : hain zen azkar eta sall noun ezpeitzian deus eñheduranik borogatzen ; mintzoa ochen zian, eta behin irakourtia etzaion sekula ahazten.

Bestalde behinere ikhasten aritu gabe, eman zeron Jinkoak frantzesaren eta italianoaren jakitatia. Mirakullia, orano, noula nahika bazen hora entzuten edo entzun nahiz ien hounetan. Emaztebat, bere senhar barreiatat Antoniren entzutera eitzi nahi etziana, igain zen selaoruku leihobat etara, eta nahiz orenbaten bidia bazen saintia mintzo zen eretzialano, entzun zian halere, eta ondo ondoan izan baliz bezañ ountsa.

Bigerren emaztebat joan zen pheredikiala bere haorra etchen eitzirik. Haor hora erori zaion hour herakinez betherik zen bertzbatetara, eta hartan barren, etcherat utzuli ondoan, ediren zian tchostakan ari, mañhu ephel batetan bezala izan baliz bezain gochoki.

Bestebat bere haorra ithorik hatzamanik khuñan, badoa, bihotzmin handienarekin saintiari erraitera zer agitu zaion, haren pheredikia entzun nahi izan delakoz. Saintiak ihardesten dero : « Zoaza, emaztia, bizi duzu zoure haorra. » Bizirik ediren zian, ordian arraphiztu beitzeron.

Aldi batez ekhaitza zadukan odei bat lehertzera zoan pheredikatzen ari zen lekhun gaña ; eta jadanik behazale guziak ihesi egitekotan ziren, saintiak erran zerenian : « Zaozte hor berian etzidie boustiren. » Odeia dena hourtu zen, jentia bildurik zen ungunian, ihour ere boustigabe.

Beste behin mezugilebat lehia gaitzian joaiten da

andere bati erraitera semia hil zaiola eta utzul dadin behala etcherat. Bena saintiak, zer den gizon houra ikhousirik, erraiten derio heiagoraka hasten zen anderiari : « Ifernuko ezpiritu nahasia jarraikitzen zaizu ondotik ; bazaodiroke hor berian zoure semia eztuzu eri ere. Gezurraren aitak gezurra diozu. » Eta debria, ahalketia ezaguturik zelakoz, khetan itzali zen.

Houna orano gaiza hospagarriagobat. Sant Anto niri agitu zaio askotan bi eretz etan izatia ordu berian. Horrelako bat aiphatuko dut berbera.

Behin saintiaren aita gizerhaile bezala hartzera bazoatzen, haren baratzian gorde beitzian gaichkigiliai hiltzianaren khorpitz. Erran gabe da, gizon dohaka-biak zioan alkhater eta unguru ikhouston zian jente ozte handiari : « Ene eskiak eztira egundano ihouren odolaz gorritu. Zer ogen dut khorphitz hao baratzian ezari badeitadet ? »

Ordian aoherretan ari zen, eta jadanik kondenatu zien, nouiz eta nahigabezko oiubat egin beitzien han zirenek orok. Batbatetan agertu zen saintia, ainguru baten antzo ; heltzian hilari buruz utzulirik, erraiten derio : « Hots, chuti hadi ; manatzen deiat erran dezagukan ja ene aitak haianez eho ? » Hainbestenareki chutitzen da hila, eta ihardesten du eztela houra haren ehailia, eta berriz etzaten da. Halaz saintiaren aitak etzutian ez ouhouria ez bizia galdu, eta Antoni utzuli zen bere fraide lagunetarat jin zen bezala.

Ifernuko errege maradikatiak etzeron pharkatu behar zeren hainbeste arima eskietarik idokiten zeron. Ari zaion arren, batian bera chuchenka, bestian aldiz, zerbait gizagaichtoren bidez, ahal zian bezanbat traba aitzinian ezarten. Behin pheredikatzen ari zelarik, egotchi zian bere pheredikagiarekin. Bena Jaonaren ainguriak begiratu zian minhartzetik.

Basa sinhestebati jarraikiten zen gizoun batek ere, saintiak eman pheredikiaren indarra gal erazi behar zialako oustekerian, erran zeron : « Nik sinhetsiko

dit Jesus Krist goure Jaona althareko sakramentian dela, ene mandoa, hirour egunez gosiareki egon, eta nik eskeintuko do dan jatekoa eitzirik, joaiten balinbada haren adoratzera. » Gizoun harek ezin egin zaitekiana ouse zian galthatzen ziala.

Halere saintiak ihardesten dero : « Badukezu gudi-ziatzen duzun proba. » Eta, hirourgeren egunian, ikhousi zien mando gosia, bere janharria eitzirik, sakramentu saintiaren aitzinian belharikatzen.


Zounbat beste mirakullu eztu egin, oro ezin khountatiak ?

Etzen handi holako photeria mundu hountako gaitzetan zian gizouna Jinkoaren adichkide bazen. Etzeron behin ere ahlatzi goure Jaonaren eskietan zela arma iguñebaten antzo, eta zer nahi eginik bere buria aphil eta umil edukiten zian. Egunetik eguniala, handitzez zoan Jesus haorarentako eta harek lur hountan egari gaitzen zian maitetarzuna. Behin zagoen etcheko buruzagiak ikhousi zian, gai batez, khantian ziala Jesus haorra, eta ari zaiola eztiki machelen berekatzen. Bazian ere Jinkoaren Amarentako debozione handia ; hari zen berheziki hersatzen tentazionetan.


Hamar ourthez iharaosi zutian Italiako eta Frantziako probinzia ounsatto bere pheredikiez eta mirakulliez. Hil izan zen hogeita hamasei gerren ourthian ; Jinko Jaonak berak urgaitzi zian thenore hartan, eta haren arima ederra joan zen zelilat.

Dona Antoniri hersatzen ohi dira beraien hountan, bidian edo itchasoan direnak, emazte haor nahian edo esparantchan direnak, eta gaiza galdien bilha dabilzanak.





LABORANTCHAZ



1. Uztak 1895 an

JOAN den ourthian belhar eta bazkagei ounsatto izanik, laborari haboroek kabale gehiago hazi die, eta bazka eskazak hertzera bortchatu zutian arthaldiak, ahalaz handitu eta ohiko henian ezari. Errekoiltak oro hounziren ere, bena noula oraiko ordietan nekaturik beita bizitzia, ezutue haietarik idoki laboriarek ountsala behar zutukien mouzkinak. Lurreko ekhoitzetako sarien beheratzia, atzerrietako konkurrentziak erazirik, aldebatik ; legar eta phetcha muta ororen eta langilen soldaten gorentziak, bestaldetik, bortchatzen dutie laborariak oro, edo gutiz bestiak, lanian aritzera, mouzkin batere egin gabe, ezpadira ere galtzetan ari.

Aorthen gaizak eztira hobeki joaiten, eretze orotan balia handitako berritzapenak hedaturik ere. Erran behar da hatik izan dela belharrez gaintika, (gune zounbaitetan uholdiek pharte galerazi die ;) halaz kabale hazi ahalko da, eta arthaldiak handiduko dutie ; ezi kabale egitian baizik eztiroke haborariak mouzkinik bilha. Eta beharere ezukegu hortan gañen bihietan den bezalako konkurrentziarik.

Badakie gaseta zombaiti esker aorthenکوuzten berri. Ogiarenaz aiphu, erranen dut chifriak eztirela bardin emanik. *L'Echo agricole* den gazetak dio izan dela ehun eta bederatzi miliou eterdi ektolitra ogi. Goberniak prefeten medioz bildu tian berriek emaiten die ountsaz haboro, ehun eta hogeibat miliou zaku. Bena noula aitzineko ourthetangasetaren chifriak egia-tik hullanenak bilhatu beitira, sinhesteko da aorthen ere hala dela : ezi laborarier berer hersatzenda uzten estimatziaren egiteko. Eiherazañ eta minotieren gase-

tek aldiz dioie izan dela ehun eta hogeita bederaztu ogizaku bildurik 1895^{an}. Bena jaon haiek zerbait alegatzen dienian, sinhestez gogor izan behar da. Abantalla die erraitia ogi hanitch izan dela prezioen ahalaz apha erazteko. Ogiak aorthen ektolitralak 77 kilo igarancherik phezatzen du.

Arteko beno hobechago da aorthenko uzta. Eztzen igararian bezanbat lur eremu ereñik eta phezia hobe da. Hanitch houn izan da 11 departamentutan ; houn, 45 etan ; arteko hemeretzutan, eta tchipi hamabietan. Ogi zaharrik ezteko guti baizik beharko da atzeherrietako ogi ekhar erazi, bena eskaz ourthez beno gutiago, phezia hobe beita.

Atzeherrietan ere igaran ourthian beno gutiago ogi egin die. Eztie orano ukhen berri segurrik hori baizik.

Garagar izan da hameka miliou eta erdi kintale egi ten beitie hamazazpi miliou eterdi ektolitra ; sekale bazen usatu beno haboro, orotan 23 miliou ektolitra ; olho beharrunen petik, eta orano, uzta sarthu beitie haro gaichtoarekin, beldur dira bihia eztadin izan kalitatez artekotto.

Bazka badate ; belhar gorago erran bezala, gaintika ; ñabo eta beteraba uzta hounbat.

Mahastiek arteko errekoiltabat eman bazien 1894^{an} aorten eztie bata beste emanen herenbat baizik, bena houna, haro althe ukhen dielako buruilan. Aihenaren etsai berrietarik bat hedatu da uda hountan ountsatto, arrota deitzen diena, edo chouria edo beltza. Ministroak mania eman du erra erazteko eritarzunak hounki osto eta morkho guziak ; esparantcha du halaz hazia galduko dela eta daigun ourtheko eztekieiala sobera arrankuratzetik.

Sagardoi hanitch den herrietan uzta ederbat badukie ; udari hanitch guti da ; gaztaña bada eijerki.

Artho uzta ederbat bazatekian, ezpaliz izan agorri lan hasi zen idortia : ezi hanitch eretzetan buriak ez tira hazi, uhillada mentsez.

II. — Laborari botigoak edo sendikatak

BATA bestiaren bermatzez eta laguntzez baizik ez tirokeie oraiko langilek beharrari ihesi egin, ez ere, eritu, zahartu edo ezintu direneko zerbait bil. Laborariak ere nekez baizik eztu lurrari eman erazten, ez tut erraiten aberastekoa, bena berere chuhurki bizitzekoa. Bere izerdien khostuz, kabalen uzurritien eta eraontsi gaichtoen artetik, uzta ederbat eraiki dia bai, eztu behar bezala saldu ahal ukhenen, edo atze herrietarik sartzen den bihia delakoz, edo hora beno azkarrago diren salzaliak direlakoan. Halaber kabalentako. Bere indarraz eta beniaz cholli aritzez, lurren hountzeko behar direnak eros ditiroa ? Noula buru eginen du Frantzia behereko merkhatie-tan naousi diren gizoun aberats elibati ? Laborari bategen berak ezin diroana, laborari guziek edo laborari saldobatek, algarreki juntatzen badira, egin ahalko die.

Horra zer gatik azken hamar ourthe hoietan zounbait gizon bihoztoiek Frantziako eretze orotan mol-datu dutien laborarien arteko botigoa elibat, erdaraz deitzen dutienak *les Syndicats agricoles*. Hitzllabur-rez nahi dugu ezagut erazi botigoa hoietarik eguru-kitzen ahal diren ekhoizpenak. Botigoa hoier esker (beitutie ardura biltzarrenak), laborariak algar usu ikhouston die, bere egitekoez, laborantchari doatzanez elhestatzen dira, borogatu dutien berritzapenen eta iseiu hounen ondoriak algarri ezagut erazten dutie, bai eta zer bidez erospenetan edo saltzepenetan irabazia handiago edukiren dien, indar haboro biltzen laborant-cha zaphaturik etchekitzen dutien legar eta phetchak aldaturik izan ditian, gobernamentiari galthatzeko. Ba-dirade jadanik zounbait arhimentu gisa horrez ardietsirik. *Syndicat agricole* deitzen dien botigoaren hel-gieiak dira arren : — 1^{ik} Laborariak eta lur lanetik

bizi diren jentek zer beharrune dien gobernuko gizoner ezaguteratzia ; — 2^{ik} Botigoakoen artian agitzen ahal diren buhurrierrien chuchentzia, justiziako gizoner hersatu gabetarik ; — 3^{ik} Laborarien bere zuzen-tan eta eginbidetan gañen argitzia egunetik eguniala treba ahal ditian etchalteko egitekoetan ; eskola gabe direnen portadala ezartia laborantcha hobekienik joan eratzen dienen jakitatia, zouñ lurrek zer hounkallu behar dian, lurraren erabilteko bide hoberenak noulako diren, zer ereitzek uzta ederrago eman di-roan, hitz batez, etchaltiak noula hobekienik joan eraz-ten diren, eta noulaz mouzkinak emendatzen ahal di-ren ; — 4^{ik} Botigoakoen artian bata bestiaren behar ordietan laguntzeko obrenadelatzia, hala noula beitira erdaraz deitzen dutien, *secours mutuels*, *crédit agri-cole*, *caisses rurales*, eta kabale uzurriten, suiaren eta garhiaren aitziko asurantzak. Hoietarik batek, pharte-bat bederen bardintzen die, eritarzunak, suiak, garhiak eta kabale uzurritek erazi galzetan eta hanbate-naz laguntzen gaitzak borogatu laboraria. Bestek aldiz ukhen erazten deie intres doibatetan, iseu berri egiteko behar dien diharia, bai eta bere mouzkin tchi-pien arrandan ezarteko lekhu segurbat. — 5^{ik} Boti-goakoen laguntzia saltzeko dutienen ahal bezain go-ratik salzen, doietik hatik jalkhi gabe, eta salbide ber-ririk edireiten. — 6^{ik} Laborariak behar dutian gaizen ahal bezañ houn eta merke erostia : hala noula tresna suberte direnak, golde nabar, azi, hounkallu, kabale bitriol, eta beste hanitch orano. Abantalla hori baizik espaliz ere, aski lizate, bazter orotan sendikaten eraz-teko, eta houn lizate, sendikatbateg holaz egiten dian zerbutchu handiaren beraren, laborariak oro hartan sar ditian.

Bazaio laborariari, gaizen baliari ihourkerek beno hobekiago ohartzia ; eta segur da sendikat baten medioz gaizak erosiz, berak chuchenka erosiz beno merkiago eta hobe batukiala ; ezlakike ere usian nouri hersa

tresna berri eta hounkallu suberte elibaten ukheitako. Laboraribatek gaizak egingia edo lankhietarik chuchenka erakharririk ere, khario hel litzeizko, elukialako aldian aphur baizik galtha. Bena sendikat batek erostez pharteliantek behar dutienak, orai berian hounkalliak eta tresna handiak, salzalek, bati berari aldian saltzen dien hanitcha gatik, ountsa ere merkiago emanen dutie, tresna balia handitako zounbait, bostgerrenaz eta laorgerrenaz drano prezio markatiaren petik ere.

Bestalde burduñ bidez egiten diren kharreiatzen gastiak gorago dira phezú tchipian, araoka, phezú handian beno. Hanitchek eztie menturaz ouste ukhenen hola izan daitiala, eta hatik erran bezala agitzen da. Houna mila kilo marchandiza batetarik, Parisetik eta Maolera igortekoa dena; ezarten dit haien kharreiatziarentako eman beharko dela berrogeibat libera. Uduri du hamar mila kilo entako beharko dela eman hamarrez haboro erran nahi beita laor ehun libera. Eta egiaz, erdiaz gutiago sari phakatuko da. Zer gatik hori? Burduñbiden naousientako abantalla beita karro edo *wagon* baten Parisen betha, eta Maoleat chuchen igortia, arrahounkitzeko esku lan berririk gabe, hala hala giltzaturik baliz bezala. Eta gero, marchandiza besteki nahas kharreiatzen ahal ezdutionentako, beharko beita karro bat berbera mila kiloentako, karro bakhoitzak edeiten tialarik hamar mila kilo. Hortik ehi ikhouston da zounbat ekhoizpen deragokan gaizen botinajian erostia.

Mekanika eta laborantchako tresnak ere sendikat batek, bethi laborari choll batek beno sari aphaagoan badutuke. Ourthian harmabat edo biga baizik hartzen eztian erostunaz prebalitzera ezduke herabe salzaliak, pratika hora galdurik ere ezpeituke errisku handirik; bena sendikat baten pratika handiaren begiratzeko, bilzeko ere behardada, haren ountsa eta ahalaz merke zerbutchatchera iseiaturen da.

Ereitze suberte egiten direnentako haziez aiphu, eztaiteke jaozi handirik gertha batbederak ala botinajian erosteko prezioetan. Bena batbederak egin ezdirokiana, sendikatak eginen du : sogitia haziak chahu ala theiu diren, houn, ala burnatzeko indarra galdurik direnez. Lan horren burutzeko sendikatek badutie berhezizko gizonak ; hourak aski ezpadira, Pariseat igortzen dutie haziak Pariseko gizon jakintsu elibati, ikher-turik izateko.

Horra sendikatek zer zerbutchu egin dirokien (eta eztutugu oro aiphatu,) eta noula laborari guziek behar lukien hetan pharteliant sarthu.

Bena neke deia sendikat baten mouldatzia ? Ez gaitza erratzenetarik da. Aski da : 1^{ik} Botigoan sartzeko houn direnen edireitia. Ezta neseari saldo handitan izanditian, bena bai gizon leial eta chuchen, beraien intreser bezala aizokoener sogile, eta Jinkoaren aitzinian anaie girela ezagutzale. — 2^{ik} Botigoako beharden den izkiribiaren hountzia. — 3^{ik} Izkiribu haren herriko etchian ezartia, gehienaren eta segretari edo bereteraren sinadurekin, eta botigoaren aholkuzko gizonen izenekin. Deusere besterik gabe sendikata eginik da, eta aitzina eman diroke horietarik landan.


Erran dutugun horik oro izkiribaturik ziren jakin dugunian goure Zibero herri maitian badirela hirour sendikat joan den ourthe urhentzian hounturik, bata Barkochen, bestia Atharratzen, eta azkena Maolen. Haietan sarthurik badira umen laor ehun laborari, eta atse handi egin deiku horren jakitiak. Hatsarre ederra zen eta esparantcha dugu eztirela hortan baratuko. Jinkoak detsala, Herriko baster guzietara drano heda ditian botigoa balious horik, eta arte luze gabe Ziberroutar laborari guziek goza ditzen sendikat hoiek bere pharteliant guzier erazi deitzen abantalla eta ekhoizpen hounak oro.

Botigoa hoietan sartzeko nahikuntia dukianak aski duke Jaon E. d'Andurain, Maolekoari, edo Jaon Emila

Darhanpe, Atharratzekoari, edo Jaon Arman d'Arthez, Barkochekoari, hersatzia eta bere galthoaren haier buruz igortia. Jaon errespetagarri horik dirade bere pharteliant lagunek, Barkoche, Maole eta Atharratzekoek haitaturik, hirour sendikaten aitzindari eta buru. Paobeko sendikat handiarekin bat egiten die, azken hounen abantalla handiagoez gozatzeko. Botigoa hoietan zer nahi aldetako gizonak sar daiteke, ala errepublikatiar, ala erregetiar, ala enperadoretiar, chuchen, leial, eta aiphu houneko direnber. Biltzarrenetan, eztie nahi politikako khidegoez ere aiphurik, orori zabalturik direlakoz sendikatak, eta legiak ere ezpeitu haizu eizten. Laborantchari doatzanez berbera mintzatzetz badukie zer eras.



ISTORIA ETA ERASI



BEHINBATEZ, *Picardie* deitzen dien herriko gizounbat elizabat etara sarthu zen besta egunaz, ofizioetarik landan. Elizako saintu patrouaren errelikiak oro ikhousi zutian althare aitzineko mahañ baten gañen hedaturik besta eguna zelakoz; haien saihetsian bazen phaosaturik, mezatik landan, zilhar inchensatzeko bat, orano suz betherik zena. Bihotzak erraiten dero goure gizounari behar dutiala harek ere bere debozioniak egin, eta hasten da bederazka errelikier orori, begiak erdi hersirik, pot emaiten. Heltu zenian inchensatzekoala, oustez harek ere zerbait errelikia baziala, pot egin zeron. Bena inkhatzak orano sutan beitziren, ezpañak erre zutian. Krakez gibeltu buria, eta erran zian bere herriko mintzairian : « *Ti dié, que sti petio Saint a la goule caude!* »

Erran nahi beita uskaraz : Jinko Joana ! saintu tchipi hounek buria zouñen bero dian !

*
*

Aspaldi diala eta ountsa aspaldi, kapochibat pheredikatzen ari zen Bertutako elizan. Egun hartan pheredikagiatik usatu beno haboroche emaztiak chardeki zutian Jinkoaren zerbutchariak ; noun eta bat, ez batere hiriko chehenetarik, pheredikiak bola erazirik, joan beitzeron erraitera Jinko hounak egin ziala emaztia azkenik gaizarik hobena bezala, eta ogen ziala kreationeko lan ederrena hain gaizki erabiliz. Kapochiak hotzki behaturik haren elhiari, sogin zeron hounetarik eta buriala eta erran : « Anderia, hanitch badakizu, bena ez aski orano, jakiteko, etchebaten egitian, azken lana dela hegatz thinian jiroetabaten ezartia. »

*
**

Bidajantepañoul bat Ameriketako *pampas* edo desertubatetan igaraiten zelarik bathu zian basa Indianobat zamari gazte eta eder batetan gañen bazoena. Españoula ere zaldiz zen, bena zamaria utchuraz eta egitez tchar beitzian, beldur zen bidian ukha lekion. Indianoari galthatzen dero eia nahi dianez zamariaz truku egin ; bestiak ihardesten ezetz. Españoula ordian bilhakan hasten zaio, eta Indiano gaichoa beno hobeki armaturik beita, hanitch bortchatu gabe hartzen dero zamari ederra eta hartan igainik emaiten du aitzina bere bidiari. Indianoa jarraikiten zaio gibeletik eta heltu direnian lehen herriala, joaiten da hersatzera hanko alkhate gehienari. Berhala jaon alkhatiak deitzen dutu biak bere aitziniala zamariarekin, eta galthatzen dero Españoulari zerentako Indianoa bere zamariaz gabetu dian. « Jaona, bestiak arrapostu, gizon hori gezurtibat duzu, enia duzu zamaria, gazte gaztetik nihaorrek alhaturik. Ezin ezagutian zouin zen egiazki kabaliaren buruzagia, bakhoitza tink beitzia-

goan bere erranian, jaon alkhatiak igorri nahi zutian, nouiz eta Indianoak erran beitzeron : « Zamari hao enia duzu eta probatzen dit. » Hain sarri, souñian zian kapa idok, eta estaltzen du zamariaren buria. Eta berriz jaon alkhatiari buruz unguraturik : « Jaona, Españoul horrek dioanaz geroz zaldia horrena dela, eta gazte gaztetik badiala, galtha ezozu arren zouin begitarik okher den. » Españoulak berhala arrapostu, ezpeitzian dudatzeko biderik eman nahi alkhatiari : « Eskuñeko begia dizu ments. » — « Eta arren, jaona, Indianoak alkhatiari, kapa idokiten dialarik zamariaren burun gañetik, sogiozu ; eztizu begirik batere ments. » Jujiak ikhousi zian zaldiak bazutiala bi begiak ederrik eta pot emangarriak. Ageri zen nourena zen kabalia ; eta Indianoari erran zeron har lezan bereki eta eroan etcherat.

*
**

Madrilla ungurunetako gus handibat eske zabilalarik, igaraile batek erraiten dero : « Etzira ahalke borthaz bortha ebiltera, dutuzun indar eta osagarriarekila ? » — « Jaona, bestiak gothorki arrapostu, eztereizut aholkurik galthatzen, bena bai amoina. » — Hori erranik, gibela eman, eta joan zen, buria gora, Kastillano bat zen bezala.

*
**

Pheredikari batek zioan behin pheredikagiatik Jinko hounak egin gaiza guziak ountsa eginik direla. Touñut bat bazen behazaletan, horren entzutiareki bere beithan eroan ziana : « Eztiat nik hori aisa iretsiko. » Pheredikia urhentu, eta touñutak pheredikazalia egurukiten du eliza borthan : « Jaona, erraiten dero ikhoustiareki, pharka amurratzen bazutut ; doi doia erran duzu Jinko hounak egin gaizak oro ountsa eginik direla. Sogiozu ene bizkarrari, ni noula egin naian. » Pheredikazaliak so, eta ihardesten dero : « Bena, ene gizoun maitia, hanitch ountsa eginik zira touñut batentako. »

*
**

Sarjant bat bohorran gañen bazoan zedulabaten emaitera aizoko herribatetara. Bidiari gainti bazoalarik, marhuga eder parrastabat ikhousten du khaparstoi batetan. Haietarik ondo bat egin behar ziala, igaiten da chutik zelan gaña. Marhugen jaten ari zelarik, sarjantak erran zian bere buriari : « Ountsa nundukek orai, nourbaitek ene astoari oi hu egin baleza, arri ! » Nahigabetarik azken hitz hori goratto eman zian ; bohorra jaozibatez abiatu, eta sarjanta zankhaz gora erori khapar artiala. Haren emaztia eta neskatoa, ikhoustiareki bohorra hutsik heltzen etcherat, heiagoraz hasten dira ; berhala abiatu ondouan, eta edireiten die gizouna khapar artian ezin libratuz, souñekoak eta begithartia nahar zarrastaz betherik. Istoria hounen bildumenetik ageri da eztela bethi houn gogoan erabilten denaren erraitia.

*
**

Hiribatetako zinegotchiek hounkijinezko pherediku bat behar zielarik egin Henrik IV gerrenari, nahi beitzien errege aiphatu hori erakoutsu ountsa eskolaturik zirela, gisa hountan hasi zien pheredikia : « Annibal Kartajatik abiatzian... » Erregek hain sarri erran zeren : « Annibal Kartajatik abiatzian barazkaturik zuzun ; Banoazu beste hainbesteren egitera. »

*
**

1793^{an}, *Carrier*, sobera aiphatiak laborari bati erraiten zian : « Zien zeñutegiak eta zien Elizak irailiko tizugu » — « Baditezu », erran zeron laboriarak ; « bena izarrak, hatik eitziko tuzie ! Kartilla houra duguno, hartan goure haorrer Jinko hounaren izena erakoutsiko dizugu. »

*
**

• Nourbaitek alegatzen zian Jinkorik eztela etzialakoz ikhousi behin ere. Bestebatek berhala : « Holaz, jaona, nik ere erraiten ahal dit zuk eztuzula ezipiriturik, ezpeitut ikhousten ».




MAIATZA edo EPHAILA
Eg. luzatzen dira oren eta laordenez

- ☿ a. l. 4ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 35^{min}
 ● a. b. 12ⁿ, arratseko 5^{or} eta 56^{min}
 ☽ l. l. 20ⁿ, goizanko 6^{or} éterdit.
 ☾ a. o. 26ⁿ, arratseko 10^{or} eta 8^{min}

ARRAMAIATZA edo BAGILA
Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.

- ☿ a. l. 7ⁿ, goizanko, 8^{or} eta 12^{min}
 ● a. b. 11ⁿ, goizanko 8^{or} eta 52^{min}
 ☽ l. l. 18ⁿ, goizanko 11^{or} eta 50^{min}
 ☾ a. o. 25ⁿ, goizanko 7^{or} eta 4^{min}



1	Ostirale.	J. Filipe et. Jak. Ap.
2	Neskanegun.	s. Atanasi.
3	Igante. 4.	<i>Da Khurutze.</i>
4	Astelehen.	sa Monika.
5	Asteharte.	s. Pio V.
6	Astizken.	J. Johane, Eb. B. L.
7	Ostegun.	s. Stanizlaz.
8	Ostirale.	J. Migel. agert.
9	Neskanegun.	s. Gregori, na.
10	Igante. 5.	s. <i>Antonen.</i>
11	Astelehen.	s. Errogazioniak.
12	Asteharte.	s. Nere eta Akil.
13	Astizken.	s. Jenio.
14	Ostegun.	SALBATORE
15	Ostirale.	s. Eutrope.
16	Neskanegun.	s. Johane Nep.
17	Igante.	s. <i>Paskal.</i>
18	Astelehen.	s. Venanzio.
19	Asteharte.	sa Pudenziana.
20	Astizken.	s. Bernardeñ.
21	Ostegun.	s. Petiri Zel.
22	Ostirale.	sa Kiteria.
23	Neskanegun.	s. Ubalde.
24	Igante.	PENTEKOSTE.
25	Astelehen.	s. Gregori VII.
26	Asteharte.	s. Filipe Neri.
27	Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. M. Mad. P.
28	Ostegun.	s. Agosti.
29	Ost. <i>IV Th. B.</i>	s. Garzia.
30	Nesk. <i>IV Th. B.</i>	s. Felis.
31	Igante. 1.	TRINITATE.

1	Astelehen.	s. Kler.
2	Asteharte.	s. Poten.
3	Astizken.	sa Klotilda.
4	Ostegun.	BESTABERRI.
5	Ostirale.	s. Bonifazi.
6	Neskanegun.	s. Norbert.
7	Igante. 2.	s. <i>Majan.</i>
8	Astelehen.	s. Medart.
9	Asteharte.	sa Pelajia.
10	Astizken.	sa Margarita.
11	Ostegun.	J. BARNABE, ap.
12	Ostirale.	J. BIHOTZ SAK.
13	Neskanegun.	s. <i>Antoni</i> , Pad.
14	Igante. 3.	s. <i>Basila.</i>
15	Astelehen.	sa Jermena.
16	Asteharte.	s. Franzes R.
17	Astizken.	s. Avit.
18	Ostegun.	sa Marina.
19	Ostirale.	s. Jervasi eta Prot.
20	Neskanegun.	sa Julienna Falk.
21	Igante. 4.	s. <i>Louis Gonz.</i>
22	Astelehen.	s. Pauleñ.
23	Asteharte.	s. <i>Eusebio.</i>
24	Astizken.	J. JOHANE BA.
25	Ostegun.	s. Eurosia.
26	Ostirale.	s. Johane eta Paule.
27	Neskanegun.	s. Prosper.
28	Igante. 5.	s. <i>Irene.</i>
29	Astelehen.	J. PETIRI P.
30	Asteharte.	J. Phaoleren orh.



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ☾ a. l. 3ⁿ, goizanko 1^{or} eta 33^{min}.
 ● a. b. 10ⁿ, arratseko 8^{or} eta 44^{min}.
 ☽ l. l. 17ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 14^{min}.
 ☾ a. o. 24ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 55^{min}.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ☾ a. l. 1ⁿ, arrastiriko 6^{or} eta 44^{min}.
 ● a. b. 9ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 11^{min}.
 ☽ l. l. 15ⁿ, goizanko 9^{or} eta 12^{min}.
 ☾ a. o. 23ⁿ, arrastiriko 7^{or} eta 15^{min}.
 ☾ a. l. 31ⁿ goizanko 11^{or} eta 5^{min}.



1 Astizken.	s. Tierri	1 Neskanegun.	J. Petiri katielan.
2 Ostegun.	A. B. BISRAZ.	2 Igante. 10.	s. Alfonso Lig.
3 Ostirale.	s. Gillen.	3 Astelehen.	J. Ezteber. edir.
4 Neskanegun.	s. Leon II.	4 Asteharte.	s. Dominiche.
5 Igante. 6.	J. K. Odol Pr.	5 Astizken.	A. B. M. Elbur.
6 Astelehen.	s. Trankile.	6 Ostegun.	J. K. Transfig.
7 Asteharte.	s. Marzial.	7 Ostirale.	s. Kajetan.
8 Astizken.	sa Beronika	8 Neskanegun.	s. Ziriako.
9 Ostegun.	sa Elisabet, p	9 Igante. 11.	s. Jermeñ.
10 Ostirale.	Zazpi anaie m.	10 Astelehen.	s. Laorenz, m.
11 Neskanegun.	s. Pio.	11 Asteharte.	s. Tiburze.
12 Igante. 7.	s. Johane Galb.	12 Astizken.	sa Klara.
13 Astelehen.	s. Anaklet.	13 Ostegun.	sa Raqegonda.
14 Asteharte.	S. Bonaventura	14 Ostirale.	s. Eusebi.
15 Astizken.	s. Johane Maj.	15 Neskanegun.	A. D. M. MARIA Zel.
16 Ostegun.	A. D. M. KARM.	16 Igante. 12.	s. Joakimo.
17 Ostirale.	s. Aletsis.	17 Astelehen.	sa Emilia.
18 Neskanegun.	s. Kamille.	18 Asteharte.	s. Elena.
19 Igante. 8.	s. Bizente Paolo.	19 Astizken.	s. Filomena.
20 Astelehen.	s. Filibert.	20 Ostegun.	s. Bernat.
21 Asteharte.	sa Pratseda.	21 Ostirale.	s. Julien, Lesk.
22 Astizken.	sa M. Maidalena	22 Neskanegun.	s. Ipolita.
23 Ostegun.	s. Apolinari.	23 Igante. 13.	A. B. Bihotzs.
24 Ostirale.	s. Henrik.	24 Astelehen.	J. BARTTOL., a.
25 Neskanegun.	J. JAKOBE, ap.	25 Asteharte.	s. Louis, erreg.
26 Igante. 9.	sa Ana.	26 Astizken.	s. Filibert.
27 Astelehen.	s. Galatori.	27 Ostegun.	s. Jusef. Kal.
28 Asteharte.	s. Nazari eta Zelze.	28 Ostirale.	s. Agosti.
29 Astizken.	sa Marta.	29 Neskanegun.	J. Joh Lephom.
30 Ostegun.	s. Abdon.	30 Igante. 14	sa Rosa, Lima
31 Ostirale.	S. Inazio Loiala.	31 Astelehen.	s. Remoun N.



BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ⊙ a. b. 7ⁿ, arrastiriko or 1 eta 53 min.
- ⊙ l. l. 14ⁿ, goizanko 4^{or} eta 53 min.
- ⊙ a. o. 21ⁿ, arrasteko 10^{or} eta 59 min.
- ⊙ a. l. 30ⁿ, goizanko 2^{or} eta 8 min.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oien 1 eta erdiz.



- ⊙ a. b. 6ⁿ, arrasteko 10^{or} eta 28 min.
- ⊙ l. l. 13ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 57 min.
- ⊙ a. o. 21ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 27 min.
- ⊙ a. l. 29ⁿ, arrastiriko 3^{or} et' erditan.



- 1 Asteharte. s. Bizente, ap. m.
- 2 Astizken. s. Eztebe, erreg
- 3 Ostegun. s. Lizier.
- 4 Ostirale. sa Franz. Chant
- 5 Neskanegun. s. Laorenz J.
- 6 **Igante.** 14. s. *Onesi foro.*
- 7 Astelehen. s. Zebero.
- 8 Asteharte. A. B. SORTZIA.
- 9 Astizken. s. Omer.
- 10 Ostegun. s. Nikolas.
- 11 Ostirale. s. Hiazinte.
- 12 Neskanegun. s. Gi.
- 13 **Igante.** 15. A. B. *Izen Saint.*
- 14 Astelehen. D^{na} Khurutze.
- 15 Asteharte. s. Nikomede.
- 16 Astizk. *IV Th. B.* s. Ziprien.
- 17 Ostegun. s. Franz. Zaor.
- 18 Ostir. *IV Th. B.* s. Jusef Kup.
- 19 Nesk. *IV Th. B.* s. Janvier.
- 20 **Igante.** 16. A. B. DOLOR.
- 21 Astelehen. J. MATHIU, Eb.
- 22 Asteharte. s. Maor.
- 23 Astizken. sa Rekla.
- 24 Ostegun. A. B. Librazalia
- 25 Ostirale. s. Aostinde.
- 26 Neskanegun. s. Tomas Vill.
- 27 **Igante.** 17. s. Kosme eta Dam.
- 28 Astelehen. s. Faoste.
- 29 Asteharte. J. MIGEL, ark.
- 30 Astizken. s. *Jeronimo.*

- 1 Ostegun. s. Remi.
- 2 Ostirale. *Ainguru Begir.*
- 3 Neskanegun. s. Frantzcs, As.
- 4 **Igante.** 18. ARRUSARIOA
- 5 Astelehen. s. Venzeslaz.
- 6 Asteharte. s. Bruno.
- 7 Astizken. s. Fide.
- 8 Ostegun. sa Birjita.
- 9 Ostirale. s. Denis.
- 10 Neskanegun. s. Frantzes Bor.
- 11 **Igante.** 19. *A. B. Amalarz.*
- 12 Astelehen. sa Domnina.
- 13 Asteharte. s. Edoart.
- 14 Astizken. s. Kalista.
- 15 Ostegun. s. Teresa.
- 16 Ostirale. s. Bertran.
- 17 Neskanegun. *J. Lux Eb.*
- 18 **Igante.** 20. *A. B. Garbilarz*
- 19 Astelehen. s. *Grat. Olor.*
- 20 Asteharte. s. Johane K.
- 21 Astizken. sa Ursula
- 22 Ostegun. s. Petiri, Ark.
- 23 Ostirale. s. Leotade.
- 24 Neskanegun. s. *Rafael, alkz*
- 25 **Igante.** 21. *A. B. Patron.*
- 26 Astelehen. s. Evarista.
- 27 Asteharte. s. Fronton.
- 28 Astizken. J. SIMOUN, ap.
- 29 Ostegun. sa. Eusebia.
- 30 Ostirale. s. Kazieñ.
- 31 Neskanegun. s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA

Egunak llaburtzen dira orenez.




- a. b. 5ⁿ, goizanko 7^{or} eta 48^m.
- ☽ l. l. 12ⁿ, goizanko 5^{or} eta 28^m.
- ☾ a. o. 20ⁿ, goizanko 10^{or} eta 34^m.
- ☿ a. l. 28ⁿ, goizanko 2^{or} eta 53^m.

ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}.

- a. b. 4ⁿ, arratseko 6 orenetan.
- ☽ l. l. 12ⁿ, gaiherdi eta 39^m.
- ☾ a. o. 20ⁿ, goizanko 4^{or} eta 15^m.
- ☿ a. l. 27ⁿ, eguerdi eta 18^m.




1 Igante. 23.	DONISANTORE.	1 Asteharte.	s. Eloi.
2 Astelehen.	<i>Purg. Arimak.</i>	2 Astizken.	s ^a Bibiana.
3 Asteharte.	s. Zebero.	3 Ostegun.	s. <i>Frantzés Zab.</i>
4 Astizken.	s. Charles Bor.	4 Ostirale.	s ^a Barbara.
5 Ostegun.	s. Zakaria.	5 Neskanegun.	s. Sabas.
6 Ostirale.	s. Léonart.	6 Ig. <i>Abent.</i> 2 ^a .	<i>Abentuko</i> 2 ^a .
7 Neskanegun.	s. Florent.	7 Astelehen.	s. Ambrosi.
8 Igante. 24.	<i>Eurrellikia</i> sk.	8 Asteharte.	A. B. KONTZEP.
9 Astelehen.	s. Teodoro.	9 Astizken.	s. Jeronze.
10 Asteharte.	s. Andreu Av.	10 Ostegun.	s ^a Eulalia.
11 Astizken.	J. MARTINE.	11 Ostirale.	s. Daniel.
12 Ostegun.	s. Stanizlaz K.	12 Neskanegun.	s. Melkiade
13 Ostirale.	s. Didazi.	13 Igante.	<i>Abentuko</i> 3 ^a .
14 Neskanegun.	s. Josafat.	14 Astelehen.	s. Arzene.
15 Igante. 25.	ELIZEN SAKR.	15 Asteharte.	s. Mismeñ.
16 Astelehen.	s. Edmon.	16 Astiz. <i>IVTh.B.</i>	s. Euzebio.
17 Asteharte.	s. Gregori T.	17 Ostegun.	s. Lazaro.
18 Astizken.	s. Odon.	18 Ostir. <i>IVTh.B.</i>	s. Gaziñ.
19 Ostegun.	s ^a Elisabet Ong.	19 Nesk. <i>IVTh.B.</i>	s. Urbeñ.
20 Ostirale.	s. Péllis, Valesi.	20 Igante.	<i>Abentuko</i> 4 ^a .
21 Neskanegun.	A. B. <i>Eskentzia</i>	21 Astelehen.	J. TOMAS, Ap.
22 Igante. 26.	s ^a <i>Zexila.</i>	22 Asteharte.	s. Flavieñ.
23 Astelehen.	s. Klement.	23 Astizken.	s. Onorat.
24 Asteharte.	s. Johane Kh.	24 Ostegun.	s ^a Delfina.
25 Astizken.	s ^a Katalina.	25 Ostirale.	EGUBERRI.
26 Ostegun.	s. Petiri, Alk.	26 Neskanegun.	J. EZTEBE, m.
27 Ostirale.	s. Virjile.	27 Igante.	J. JOHANE, Eb.
28 Neskanegun.	s. Maorino.	28 Astelehen.	Haor Inoz.
29 Igante.	ABENTUKO 1 ^a .	29 Asteharte.	s. TomasKant.
30 Astelehen.	J. ANDREU, Ap.	30 Astizken.	s. Manzuet.
		31 Ostegun.	s. Silbestre.



OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6ⁿ. — ATHAR-
 RATZEN : **m.**, astelehenez, amousetik ; **f.**, Phentekoste bihara-
 menian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE
 GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste
 ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,
 Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN
m., ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian.
 — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthall. 3ⁿ *eta*
 aphiril. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondo-
 ko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN
m., astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentⁿ 8ⁿ. —
 ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen
 astehⁿ. — OLOROUN : **m.**, ostir, *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ ;
eta burullⁿ 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,
f., Górozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. —
 SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrie-
 tako asken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





Edirengia



I. Aita Sainiaren erakaspenak.....	97
II. Harizpe, marechala eta Uskaldun Chazurrak.....	100
III. Eskolatik presounategiala.....	105
IV. Legar berriak eta daigun jesaitia.....	108
V. Sant Antoni.....	113
VI. Laborantchaz :	
1º Ustak 1895 ^{an}	119
2º Laborari botigoak edo Sendikata k.....	121
VII. Urhentzeko istoria eta erasi.....	125

